

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

*2013ko abenduaren 13ko 8/2013 FORU ARAUA, Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak mantentzeko tasa arautzen duena.*

**GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK**

Jakinazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «2013ko abenduaren 13ko 8/2013 Foru Araua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak mantentzeko tasa arautzen duena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiak, partikularrek nahiz agintarieki, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2013ko abenduaren 13a.—Martin Garitano Larrañaga, Diputatu Nagusia.

(2630)

(11750)

**HITZAURREA**

1990eko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak, Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoak, 6. artikuluan xedatzen duenez, eta bide beretik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 16. artikuluko 2. apartatuko a) letran ezarritakoaren arabera, «Tasak ondoko zerga-gaia duten tributuak dira: Herri jabariaren erabilerako pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, eta zergapekoari modu partikularrean egokitutako, eragin edo mesede egiten dioten zerbitzu prestazioak edo jarduerak zuzenbide publikoko erregimenean eman edo egitea, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo jasotzeakoak ez badira edo sektore pribatuak eman edo egiten ez badituzte.»

Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrei ematen dizkien suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak lurralde historiko osora zabaltzen dira, Donostiako Udalak suteak prebenitu eta itzaltzeko ematen duen zerbitzua izan ezik.

Horrelako zerbitzuak eraginkortasun handiagoz eman ahal izateko, nahitaezkoa da baliabide ekonomiko asko jartzea zerbitzuak uneoro egoera egokian mantentzeko; gero, jarduketa konkretuak egin behar diren bakoitzean, jarri beharko diren baliabideez gain.

Hori dena kontuan izanda, foru arau honen bidez aipatu zerbitzuak uneoro egoera egokian mantentzeak sorrarazten dituen gastuak ordaintzen laguntzeko tasa bat ezartzen da.

Une jakin batean Gipuzkoan dagoen edonor izan bidaiteke ere zerbitzu horien onuradun, ondasun higiezinen jabeak dira, dudarik gabe, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta larrialdietarako zerbitzu eraginkor eta ongi mantenduak edukitzearen onuradun nagusiak. Era berean, aseguru entitate eta sozietateek ere -tasa honetan zergadunaren ordezkoaren izaera dute-, bereziki jasotzen dute zerbitzu horien onura; izan ere, horrelako zerbitzuei esker, aseguruen objektu diren ezbeharren emaitzak minimizatu egiten dira, edo asko murriztu behintzat.

**DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA**

*NORMA FORAL 8/2013, de 13 de diciembre, por la que se regula la tasa por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa*

**EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA**

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 8/2013, de 13 de diciembre, por la que se regula la tasa por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 13 de diciembre de 2013.—El Diputado General, Martin Garitano Larrañaga.

(2630)

(11750)

**PREÁMBULO**

El artículo 6 de la Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de Tasas y Precios Públicos, en línea con lo regulado en la letra a) del apartado 2 del artículo 16 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece que “Tasas son los tributos cuyo hecho imponible consiste en la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público, la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de derecho público que se refieran, afecten o beneficien de modo particular al obligado tributario, cuando los servicios o actividades no sean de solicitud o recepción voluntaria para los obligados tributarios o no se presten o realicen por el sector privado”.

La prestación a la ciudadanía de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias por la Diputación Foral de Gipuzkoa se extiende al Territorio Histórico de Gipuzkoa, con la excepción del servicio de prevención y extinción de incendios prestado por el Ayuntamiento de San Sebastián.

Para prestar dichos servicios de una manera eficaz, es imprescindible destinar elevados recursos económicos al adecuado mantenimiento de los medios precisos para ello, sin perjuicio de los que, además, resultan necesarios para las actuaciones concretas cuando deban producirse.

En consideración a ello, en virtud de esta norma foral se establece una tasa que venga a coadyuvar al sostenimiento de los gastos ocasionados por dicho mantenimiento.

Si bien cualquier persona que se encuentre en Gipuzkoa en un momento determinado puede verse beneficiada por estos servicios, no cabe duda de que las personas propietarias de bienes inmuebles resultan beneficiadas de modo particular por unos servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias eficaces y bien mantenidos. Asimismo, las entidades y sociedades aseguradoras, que en el diseño de la presente tasa tienen la condición de sustitutos del contribuyente, se ven beneficiadas de modo particular, pues la existencia de tales servicios minimiza o, cuando menos, reduce sustancialmente los resultados de los siniestros objeto de aseguramiento.

Bestalde, foru arau honen bidez sortzen dena bezalako tasa bat efizientea izan dadin, nahitaezkoa da erraz kudeatzekoaitza, zeren eta kudeaketa konplexuegia baldin bada gerta baitaiteke konplexutasun hori eragozpen bat izatea tasak bete beharreko helburua betetzeko. Une honetan ez dago erregistro publiko bat aseguratutako etxebizitzak eta aseguratu gabekoak jasotzeko. Hala ere, gaur egun higiezin gehienak aseguratuta dauzkate beren jabeek, dela suteen kontrako aseguru baten bidez, dela «arrisku anitzeko» aseguru baten bidez. Foru Aldundiak dituen datuen arabera, Gipuzkoan aseguratutako higiezinen kopurua 100eko 90 ingurukoa da.

Aseguratu gabe dauden higiezinak banan-banan ikertzeak emango lukeen lan izugarriak tasa efizientea ez izatea ekar dezake. Eta, bestalde, arrazoizko da pentsatzea orain igarotzen ari garen egoera ekonomiko konplexuan higiezina aseguratu gabe edukitzeko arrazoia, neurri handi batean, jabeak baliabide ekonomikorik ez izatea izan litekeela. Horregatik guztiagatik, bai tasaren efizientziaren ikuspegitik eta bai justizia tributarioaren ikuspegitik, komeni da suteen kontrako asegurua eta arrisku anitzeko asegurua duten higiezinen gainean ezartzea karga: Oraingoa bezalako egoera ekonomikoan behintzat, eta higiezin aseguratuei eta ez-aseguratuei buruzko datu fidagarriren ez dagoen bitartean.

Azkenik, ezartzen da tasa hau bateraezina dela dagoeneko aseguru etxeak ordaintzen ari diren kontribuzio bereziarekin, zeina ezarri baitzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile zerbitzua ezarri, hobetu edo zabaltzeagatik. Beraz, zerga figura berri baten aurrean gauden arren, horrek ez du ekarriko zergapekoek gehiago tributatu behar izatea.

#### *1. artikulua. Xeedea.*

Foru arau honen xeedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak mantentzeko tasaren exigirritasuna arautuko duen erregulazioa onartzea.

#### *2. artikulua. Zerga egitatea.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak mantentzea da tasa honen zerga egitatea, kontuan hartu gabe zerbitzu horiek zuzenean eta modu espezifikoan ematea eskatzen den ala ez.

Beraz, tasa ordaintzeko obligazioa sortzen da zerbitzu horiek existitzeagatik, eta suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuei atxikitako baliabide materialak eta giza baliabideak edozein unetan eskuragarri egoteagatik arrisku eta larrialdi egoeretan jarduteko.

2. Alde horretatik, arrisku edo larrialdi egoerak direla ulertuko da, besteak beste:

- a) Suteak edo su alarmak.
- b) Eraikinak, instalazioak edo bestelako obra zibilak behera etortzea, osorik edo zati batean.
- c) Aurriak, demolizioak edo eraispenak.
- d) Arrisku naturalen aurreko larrialdiak.
- e) Salbamenduak eta erreskateak.
- f) Suteen eta istripuen prebentzioa ekitaldi publikoetan.

Por otra parte, para que una tasa como la que se crea en virtud de esta norma foral resulte eficiente, debe tener muy presente la sencillez de su gestión, a fin de evitar que una excesiva complejidad de la misma lleve precisamente al extremo de impedir el cumplimiento de los objetivos para los que se crea. En estos momentos no se cuenta con un registro público que refleje las viviendas que están aseguradas y las que no. Ello no obstante, en la actualidad la mayoría de los inmuebles están asegurados por las personas propietarias bien mediante un seguro contra incendios o bien a través de un seguro de los conocidos como “multirriesgo”. Según los datos con los que cuenta la Diputación Foral, el número de inmuebles asegurados en Gipuzkoa es cercano al 90 por 100.

La labor que supondría investigar uno por uno los inmuebles que no están asegurados conllevaría un esfuerzo tal que podría hacer ineficiente la tasa. Y por otra parte, también resulta razonable pensar que el hecho de no asegurar un inmueble en una situación económica tan compleja como la que nos encontramos en la actualidad, puede obedecer en gran medida a la falta de medios económicos de las personas propietarias. Por todo ello, tanto desde el punto de vista de la eficiencia de la tasa como desde el punto de vista de la justicia tributaria, resulta recomendable, al menos en una situación económica como la actual y en tanto se tengan datos fiables de qué inmuebles se encuentran asegurados y cuales no, incidir a los efectos de la tasa, en los inmuebles asegurados contra incendios y mediante seguros multirriesgo.

Por último, se establece la incompatibilidad de esta tasa con la contribución especial por el establecimiento, mejora o ampliación del Servicio de Extinción de Incendios por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que ya vienen satisfaciendo las compañías de seguros. De modo que, si bien nos encontramos con una figura tributaria nueva, ello no supondrá un incremento de la tributación a satisfacer por parte de los obligados tributarios.

#### *Artículo 1. Objeto.*

Es objeto de la presente norma foral aprobar la regulación para la exigibilidad de la tasa por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

#### *Artículo 2. Hecho imponible.*

1. Constituye el hecho imponible de esta tasa el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias que presta la Diputación Foral de Gipuzkoa, con independencia de que se solicite o no una prestación directa y específica del servicio.

La obligación de contribuir se origina, por lo tanto, como consecuencia de la existencia de tales servicios y de la disponibilidad permanente de los medios materiales y humanos adscritos a dichos servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias para actuar en situaciones de riesgo y emergencia.

2. A tales efectos, se entiende, por situaciones de riesgo o emergencia, entre otras, las siguientes:

- a) Incendios o alarmas de incendio.
- b) Hundimientos totales o parciales de edificios, instalaciones y otras obras civiles.
- c) Ruinas, demoliciones o derribos.
- d) Emergencias ante riesgos naturales.
- e) Salvamentos y rescates.
- f) Prevención de incendios y accidentes en eventos públicos.

### 3. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Pertsona fisikoak eta juridikoak, eta 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauk, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 35. artikuluan aipatzen dituen entitateak izango dira tasaren zergadunak, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuen mantenimenduak onura badar-karie edo hargatik eraginda gertatzen badira.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izanik ere, zergadunaren ordekoak izango dira, Zergen Foru Arau Orokorreko 36. artikuluan aurreikusitako terminoetan, Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinen sute arriskuak eta arrisku anitzeko polizak aseguratzeten dituzten entitate edo sozietaeak, Donostiako udalerrian aseguratutako arriskuak direnean izan ezik.

### 4. artikulua. Salbuespenak.

Gipuzkoako Lurralte Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten entitateez gain, tasa honetatik salbuetsita geratuko dira lurralte mailako gainerako toki entitateak, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatua, nazioarteko itun edo akordioetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

### 5. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak mantentzeko tasaren sortzapena aldizkakoa izango da.

2. Zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da, eta tasa zergaldiaren lehenengo egunean sortuko da.

### 6. artikulua. Zerga oinarria eta kuota tributarioa.

1. Kuota tributarioa kalkulatzeko, erregeela hauek aplikatuko dira:

1.a. Zerga oinarria Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuen mantenimenduak dakarren kostua izango da, zuzeneko gastuak eta zeharkakoak kontuan hartuta, baita aplikatzekoak diren gastu finantzarioak, ibilgetuaren amortizazioa eta gastu orokorrak ere, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzua ezarri, hobetu edo zabaltzeagatiko kontribuzio bereziarekin ordainduak izan ez badira. Horretarako, kontuan hartuko da sortzaparenaren aurreko lehen ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak mantentzeak izan duen kostua.

Zerga oinarria honela zehaztuko da: Erregela honetan eta tasa honen ezarpena onartzeko expedientearen osagai den memoria ekonomiko-finantzarioan definitutako irizpide eta erregeletan xedatutakoaren arabera.

2.a. Kuota tributarioa formula honen emaitza izango da:

$$\text{Kuota tributarioa} = \frac{\text{Gk} \times \text{KBi}}{\text{KBt}}$$

Azalpena:

Gk zerga oinarria da, aurreko erregeletan xedatutakoaren arabera kalkulatua;

KBi katastro balio individuala da, hau da: Tasa honen zergadunak, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren subjektu pasibo gisa dagokion ordainagirian, tasaren sortzaparenaren aurreko lehen urtekoan, zeukan katastro balioa; eta

### Artículo 3. Sujetos pasivos.

1. Serán contribuyentes de la tasa las personas naturales y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que resulten beneficiadas o afectadas por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, tendrán la condición de sustitutos del contribuyente, en los términos previstos en el artículo 36 de la Norma Foral General Tributaria, las entidades o sociedades aseguradoras de pólizas de seguros de incendio y de multirriesgo de bienes inmuebles ubicados en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con exclusión de los riesgos asegurados en el término municipal de San Sebastián.

### Artículo 4. Exenciones.

Además de las entidades que integran el sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, estarán exentas las demás entidades locales territoriales, la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Estado, sin perjuicio de lo dispuesto en los tratados o acuerdos internacionales.

### Artículo 5. Período impositivo y devengo.

1. El devengo de la tasa por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa tendrá carácter periódico.

2. El periodo impositivo coincidirá con el año natural y la tasa se devengará el primer día del período impositivo.

### Artículo 6. Base imponible y cuota tributaria.

1. La cuota tributaria se cuantificará aplicando las siguientes reglas:

1.<sup>a</sup> La base imponible estará constituida por el coste del mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tomando en consideración los gastos directos e indirectos, incluso los de carácter financiero, amortización de inmovilizado y generales que sean de aplicación, y no hayan sido sufragados por la contribución especial por el establecimiento, mejora o ampliación de los servicios de prevención y extinción de incendios. A estos efectos, se tendrá en cuenta el coste del mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el ejercicio inmediato anterior a aquél al que se refiere el devengo.

La base imponible se determinará de conformidad con lo dispuesto en esta regla y en los criterios y reglas definidas en la memoria económico-financiera que forma parte del expediente para la aprobación del establecimiento de la presente tasa.

2.<sup>a</sup> La cuota tributaria vendrá determinada por el resultado de la siguiente fórmula:

$$\text{Cuota tributaria} = \frac{\text{Cg} \times \text{VCi}}{\text{VCt}}$$

Donde:

Cg es la base imponible determinada de acuerdo con lo dispuesto en la regla anterior;

VCi es el valor catastral que consta en el recibo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles del contribuyente de esta tasa, en su condición de sujeto pasivo de dicho impuesto, en el año inmediato anterior al que se refiera el devengo de la tasa; y

KBt-k adierazten du tasaren sortzapena gertatu aurreko urtean Gipuzkoako ondasun higiezinen katastroan dauden higiezin guztiak katastro balioen batura, Donostiako udalerrian dauden higiezinak kontatu gabe.

2. Aurrekoa hala izanik ere, zergadunen ordezkoek ordaindu beharreko kuota tributarioa hauxe izango da: Suteen kontrako aseguru polizengatik bildutako primen 100eko 5 eta arrisku anitzeko polizengatik bildutako primen 100eko 2,5. Kasu bietan, prima horiek tasaren sortzapena Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatu aurreko lehen urtekoak izan behar dute. Donostiako udalerrian aseguratutako arriskuengatik bildutako primak kanpoan geratzen dira.

3. Zergadunaren ordezkoek ordaindu beharreko kuota tributarioaren muga artikulu honetan ezarritakoaren arabera kalkulatutako zerga oinarriaren 100eko 90 izango da.

Aseguru entitate edo sozietaek autolikidazioen bidez ordaindutako zenbateko osoa portzentaje hori baino handiagoa izango balitz, tasa kudeatzeko eta likidatzeko eskumena duen departamentuak behar diren likidazioak egingo ditu soberakina itzultzeko.

#### *7. artikulua. Tasaren kudeaketa eta likidazioa.*

1. Ogasun eta Finantza Departamentuak izango du tasa kudeatzeko eta likidatzeko eskumena.

2. Zergadunaren ordezko gisa, arriskuak aseguratzen dituzten entitate eta sozietaek tasa autolikidatu eta ordaindu beharko dute, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak horretarako onartzen duen eredua betez. Urtero egingo dute hori, ekainean zehar.

1990eko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak, Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoak, 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, lankidetza hitzarmenak sinatu ahal izango dira aseguru entitate edo sozietaek ordezkatzen dituzten entitateekin edo organizazioekin: Tasaren kudeaketan parte har dezaten, tasaren obligazio formalak eta materialak betetzea errazteko eta sinplifikatzeko xedarekin. Alde horretatik, sinatzen diren hitzarmenetan beste epe batzuk ezarri ahal izango dira tasaren autolikidazioa egiteko.

3. Edozein kasutan, tasaren kudeaketan aplikagarriak izango dira: Zergen Foru Arau Orokorraren II. eta III. tituluetan, hurrenez hurren, jasota dauden printzipioak eta prozedurak; IV. eta V. tituluetan, hurrenez hurren, zehapen erregimenari eta egintzen berrikuspenari buruz ezarrita dagoen erregulazioa; eta horiek garatzeko emandako araudia.

#### *Xedapen gehigarri bakarra.*

Foru arau honetan arautzen den tasa ez da bateragarria suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzua ezarri, hobetu edo zabaltzeagatik ezarritako kontribuzio bereziaren ordainarazpenarekin.

#### *Xedapen iragankor bakarra.*

Suteen aurkako aseguruei eta arrisku anitzeko polizei buruzko registro publiko bat eratzen ez den bitartean, Ogasun eta Finantza Departamentuak ez die likidaziorik egingo aseguratu gabeko higiezinen titular diren zergadunei.

#### *Azken xedapena.*

Foru arau hau 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

VCt representa la suma de los valores catastrales de la totalidad de los bienes inmuebles que constan en el catastro inmobiliario de Gipuzkoa en el año inmediato anterior al que se refiera el devengo de la tasa, exceptuándose los situados en el término municipal de San Sebastián.

2. No obstante lo anterior, la cuota tributaria a satisfacer por los sustitutos del contribuyente será el equivalente al 5 por 100 de las primas recaudadas por las pólizas de seguro de incendios y el 2,5 por 100 de las primas recaudadas por las pólizas de multirriesgo, en ambos casos correspondientes al año inmediatamente anterior al devengo en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, excepción hecha de las recaudadas por los riesgos asegurados en el término municipal de San Sebastián.

3. La cuota tributaria a satisfacer por los sustitutos del contribuyente tendrá como límite el 90 por 100 de la base imponible calculada según lo dispuesto en el presente artículo.

Si el importe total ingresado por las entidades o sociedades aseguradoras a través de sus autoliquidaciones superase el referido porcentaje, el departamento competente para la gestión y liquidación de la tasa procederá a girar las correspondientes liquidaciones a los efectos de devolver el exceso.

#### *Artículo 7. Gestión y liquidación de la tasa.*

1. Será competente para la gestión y liquidación de la tasa el Departamento de Hacienda y Finanzas.

2. Como sustitutos del contribuyente, las entidades o sociedades aseguradoras de riesgos estarán obligadas a autoliquidar e ingresar la tasa durante el mes de junio de cada año en el modelo que a tal efecto apruebe la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 de la Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de Tasas y Precios Públicos, podrán suscribirse convenios de colaboración con entidades u organizaciones representativas de las entidades o sociedades aseguradoras con la finalidad de participar en la gestión de la tasa, simplificando y facilitando el cumplimiento de las obligaciones formales y materiales que conlleva. A tales efectos, los convenios que se suscriban podrán establecer plazos diferentes para la autoliquidación de la tasa.

3. En la gestión de la tasa se aplicarán, en todo caso, los principios y procedimientos de la Norma Foral General Tributaria recogidos en sus títulos II y III, respectivamente, y la regulación relativa al régimen sancionador y a la revisión de actos en vía administrativa recogidos en sus títulos IV y V, respectivamente; así como su normativa de desarrollo.

#### *Disposición adicional única.*

La tasa regulada en la presente Norma Foral no es compatible con la exacción de la contribución especial por el establecimiento, mejora o ampliación de los servicios de prevención y extinción de incendios.

#### *Disposición transitoria única.*

En tanto no se constituya un registro público relativo a los seguros de incendios y pólizas multirriesgo, el Departamento de Hacienda y Finanzas no girará liquidaciones a los contribuyentes titulares de inmuebles no asegurados.

#### *Disposición final.*

La presente norma foral entrará en vigor el 1 de enero de 2014.